



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEko LANGILE FINKOEN ETXE-HONDAKINAK
JASOTZEko ZERBITZUKo GIDARI-ZAMAKETARIEN 4 LANPOSTU HUTS
LEHIAKETA-OPOSIZIO SISTEMAREN BIDEZ BETETZEko HAUTAKETA
PROZESUAREN OINARRIAK

1.- Deialdiaren xedea

Oinari hauen xedea da arautzea Debagoieneko Mankomunitateko langile finkoen etxe-hondakinak jasotzeko zerbitzuko gidari-zamaketarien 4 lanpostu huts lehiaketa-oposizio sistemaren bidez betetzeko hautaketa prozesuaren oinarriak.

Lanpostu horietako hiru Aldi Baterako Enplegua Egonkortzeko 2020ko Aparteko Lan Eskaintzaren baitan daude. Mankomunitateko Gobernu Batzarrak onetsi zuen, 2018. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legearen 9. ataleko 19.1 artikulua testuinguruan. Beste lanpostua ere Mankomunitatearen 2020ko Lan Eskaintzaren baitan dago, aipatutako 6/2018 Legean aurreikusitako birjartze tasaren testuinguruan.

Ariketa kanporatzaileak gainditu ostean lanpostu kopurua gainditzen duten hautagaien zerrenda erabili ahal izango da lanpostu horietan edo antzekoetan langileak ordeztzeko aldi baterako beharrezanez erantzuteko.

2.- Lanpostuaren ezaugarriak

Honako hauek dira lanpostu horren ezaugarriak:

- Sailkapen talde asimilatua: * (E).
- Lanpostu mailako osagarria: 13.
- Berriazko osagarria: Hilean 1.311,65 €.
- Hizkuntza eskakizuna 1
- Derrigortasun data: 2018-01-23.

Lanpostu horiek Mankomunitatearen Ingurumen Zerbitzuaren baitan egongo dira.

3.- Eginkizunak

Lanpostuaren eginkizunak edo zereginak honako hauek izango dira:

- Hondakinak biltzeko ibilgailuak gidatzea, eta kamioiaren barneko zein kanpoko mekanismoak erabiltzea, zerbitzu bakoitzerako zehaztutako ordutegian. Hondakinak biltzeko zerbitzuek Mankomunitateak etxeetako, dendetako eta ostalaritzako, industriako, garbiguneetako eta abarretako etxeko hondakinak jasotzeko gaur egun duen edo izango duen ibilgailu-flota osoa hartzen dute (garbiguneetako kamioia barne).



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

- Bilketa taldeak Mankomunitateko arduradunarekin edo zerbitzu zentralean izan beharreko komunikazioez arduratzea.
- Mankomunitateak ezarritako eredia erabiliz lan-partea egitea.
- Zamaketariak egindako kamioiaren garbiketari onespina ematea, eta bakarrik lan egiten badu, kamioia berak garbitzea.
- Zamaketariak egindako edukiontzietako hondakinen bereizketa egiaztatzea, edukiontzia jaso gabe utzi aurretik.
- Egin beharreko ibilbidean jaso daitezkeen edukiontziak kodetzeaz arduratzea, eta sortutako gorabeherak erregistratzea.
- Lan-tresnen funtzionamendu egokiaz arduratzea (ibilgailuak, kodetzeko aparatuak, telefono mugikorak, GPSak, etab.).
- Mekanikariari jakinaraztea ibilgailuak izan dezakeen edozein kalte edo matxura.
- Bilketa taldeak bere lana segurtasunez egiteaz arduratzea.
- Nagusiak esleitutako beste zeregin batzuk, lanpostuaren edukiarekin lotuta badaude.

Lehentasunez, txofer/zamaketariak arestian deskribatutako funtzioak egingo dituzte, baina, beharrezkoa denean, honako zamaketari-eginkizun hauek ere egin beharko dituzte:

- Hondakinak biltzeko ibilgailuak dituen kanpoko mekanismoak erabiltzea.
- Edukiontziak jasogailuan kargatu eta, deskargatu ondoren, bere lekuan utzi.
- Beharrezkoa bada, zabor-poltsak eskuz kargatu ibilgailuaren toberan.
- Zerbitzua amaitzean kamioia garbitzea.
- Garbigune ibiltaria leku batetik bestera eramatea, eta garbiguneko langileari hondakinak deskargatzen laguntzea.
- Garbigune ibiltariaren mantentze-lanak egitea (garbiketak, konponketa sinpleak, etab.).
- Zerbitzua ematean hondatutako edukiontzien mantentze-lanak egitea.
- Nagusiak esleitutako beste zeregin batzuk, lanpostuaren edukiarekin lotuta badaude.

4 . - Hautagaien baldintzak

Onartua izateko eta, hala badagokio, hautaketa prozeduran parte hartzeko, hautagaiak parte hartzeko eskariak aurkezteko epea amaitu baino lehenago bildu beharko dituzte



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

jarraian adierazitako baldintzak, eta hautaketa prozesu osoan zehar mantendu behar dituzte, kontratazioaren unera arte:

- a) 16 urte edo gehiago izatea, eta derrigorrezko gehieneko erretiro adina gainditu gabe izatea.
- b) Europar Batasuneko kide diren estatuetakoko baten herritartasuna izatea, edo Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunei jarraikiz, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea.

Parte hartu ahal izango dute, halaber, haien nazionalitatea edozein izanda ere, Europar Batasuneko kide diren estatuetakoko biztanle nazionalen ezkontideek, betiere zuzenbidez bananduta ez badaude, bai eta horien ondorengoek eta ezkontideen ondorengoek ere, 21 urtez azpikoak edo adin hori baino nagusiagoak direnak baina ezkontideen kontura bizi direnak, eta betiere ezkontide biak zuzenbidez bananduta ez badaude.

Parte hartu ahal izango dute, baita ere, aurreko paragrafoetan aintzat hartu gabeko atzerritarrek, baldin eta estatu espainiarrean bizi badira Hautatuak izatekotan, eta kontratua sinatu baino lehen, egiaztatu beharko dute kontratu horren xede den jarduera gauzatzeko administrazio baimena daukatela.

- c) Eskola ziurtagiria izatea.
- d) C motako gidabaimena, Gaitasun Profesionalaren Agiria (GGA) eta baimen hauetariko bat izatea: B+E edo C+E edo C1+E edo D+E edo D1+E.
- e) Edozein Administrazio Publikoren zerbitzutik diziplinazko espedientearen bidez kendua ez izatea eta epai irmoz funtzio publikoak betetzeko ezgaituta ez egotea.
- f) Lanpostuaren berezko zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea. Beharrezko zerbitzu medikuek egiaztatuko dute hori.

5.- Parte hartzeko eskariak

Hautaketa prozeduran parte hartzeko eskariak, horretarako ezarritako ereduaren arabera, Mankomunitateko Presidentziari zuzenduko zaizkio, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean oinarri hauek argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera aurkeztu ahal izango dira. Egun horretatik aurrera hogeitau egun baliouduneko epea egongo da. Honako baldintza hauek bildu behar dituzte eskariak:

a).- Hautagaiek deialdiko laugarren oinarrian eskatutako baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute, betiere eskabideak aurkezteko epearen azken egunari dagokionez.

B).- Lehiaketa fasean baloratuko diren merezimenduei buruzko datuak jaso beharko dituzte hautagaiek. Ez dira baloratuko eskabidean adierazten ez diren merezimenduak.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Eskabideen ereduak Mankomunitatearen egoitzan egongo dira. Bada, eskabide horiek behar bezala beteta aurkeztu beharko dira Mankomunitatearen Erregistroan (Nafarroa etorbidea 17, Arrasate) edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. Artikuluan jasotako beste edozein eratan.

6.- Datu pertsonalen babesa

Informazioaren tratamenduak kontuan hartuko du Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenetan ezarritakoa.

Datu pertsonalak erabiliko dira hautaketa prozesuan parte hartzeko eskabideak kudeatzeko, oinarri hartuta interesdunak emandako adostasuna eta tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak. Horiek, hurrenez hurren, honako arau hauetan jasota daude: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 artikulua a) eta e) hizkietan. Erregelamendu hori pertsona fisikoak babesteari buruzkoa da, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez.

Hautagaiek emandako datu pertsonalak “Langileen kudeaketa” izeneko jardueran txertatuko dira. Mankomunitateko Presidentetza da tratamenduaren organo erantzulea.

Eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko mugatzeko eta aurka egiteko eskubideak Mankomunitateko Datuen Babeseko ordezkariaren bidez balia daitezke: serviciosdpd@s21sec.com

7.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa

a.- Eskabidearekin edo parte-hartzeko eskariarekin aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- NANaren fotokopia edo, Europar Batasuneko kide diren beste estatu batzuetako herritarren kasuan, identitatea eta nazionalitatea egiaztatzen dituen dokumentua.
- Hala badagokio, egiaztatuta daukan hizkuntza-eskakizunaren frogagiria.

b.- Hautaketa prozesuan zehar aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Epaimahaiak 10 egun balioduneko epea jarriko du eskabidean alegatutako merezimenduak agiri bidez egiaztatzeko.

Egiaztatze hori oposizio fasea gainditzen duten hautagaiei soilik eskatuko zaie.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

c.- Hautaketa prozesua amaitzean aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Hautaketa prozesua gainditzen duten hautagaiak kontratazioa baino lehen aurkeztu beharko dute 4. oinarrian eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duen dokumentazioa.

8.- Hautagaiak onartzea

Eskabideak aurkezteko epea iraungitzen denean, Mankomunitateko presidentek onartu eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrendak onetsiko ditu. Horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Mankomunitatearen webgunean argitaratuko dira.

Zerrenda horietan pertsonen izena eta bi abizen jasoko dira, eta, hala badagokio, onartu ez izanaren arrazoia.

Zerrenda horretan baztertuta gelditzen diren hautagaiak 10 egun balioduneko epea izango dute, zerrenda Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, baztertzea eragin duten akatsak edo hutsak zuzentzeko edo zerrenden aurkako erreklamazioak aurkezteko.

Ezelango erreklamaziorik egongo ez balitz, behin-behineko zerrendak behin betiko bihurtuko dira, automatikoki. Erreklamazioak egonez gero, behin betiko zerrenda onartuko duen beste ebazpen baten bidez onartu edo gaitzetsiko dira. Zerrenda hori lehengoaren modu berean argitaratuko da.

Behin betiko baztertutako hautagaiak berraztertzeko errekurtsua jarri ahal izango dute ebazpena eman zuen organo beraren aurrean. Horretarako hilabeteko epea izango dute, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zeneko datatik aurrera. Bestela, zuzenean aurkara dezakete, bi hilabeteko epean, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian.

9. Kalifikazio epaimahaia

Izendapena eta osaera

Presidentziaren ebazpen bidez izendatuko dira hautaketa probak garatu eta kalifikatzeaz arduratuko den Epaimahai Kalifikatzaileko kideak.

Izendapenak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Mankomunitateko webgunean argitaratuko dira, onartu eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrendekin batera.

Epaimahai Kalifikatzailearen osaketa teknikoa izango da, eta berezitasun, inpartzialtasun eta profesionaltasun printzipioetara egokitua. Nolanahi ere, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 60. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 31. artikuluan xedatutakoa beteko da.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Epaimahai Kalifikatzailea honela osatuko da:

Mahaiburua

- Ingurumen Zerbitzuko Ustiapen arduraduna, titular gisa, eta Mankomunitateko Ingurumen Zerbitzuko karrerako funtzionario bat, ordezkoko gisa.

Mahaikideak

- Mankomunitateko Ingurumen Zerbitzuko karrerako funtzionario bat, titular gisa, eta Ingurumen Zerbitzuko beste teknikari bat, ordezkoko gisa.
- Bide Publikoko Zerbitzuen arduraduna, titular gisa, eta Ingurumen Zerbitzuko teknikari bat, ordezkoko gisa.
- Mankomunitateko Etxe-hondakinen Bilketa Zerbitzuko gidari-arduraduna, titular gisa, eta Mankomunitateko Etxe-hondakinen Bilketa Zerbitzuko langile finko den gidari bat, ordezkoko gisa.
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen ordezkari titular bat eta ordezkoko bat.

Idazkaria

- Mankomunitateko behin-behineko idazkaria edo, hala badagokio, Administrazio Orokorreko teknikari bat, biak ere karrerako funtzionarioak.

Soilik euskararen ezagutza ebaluatzeko ondorioetarako, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izendatutako beste ordezkari bat ere egongo da epaimahaian, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 99.2 artikulua ezarritakoari jarraikiz.

Epaimahaiak bere lanetan aholkulari adituak sartu ahal izango ditu hautaketa prozesuak dituen proba guztietarako edo batzuetarako. Aholkulari espezialistek ahotsa izango dute, baina botorik ez, eta epaimahaiari beren espezialitate teknikoekin laguntzera mugatuko da beren jarduna.

Abstentzioa eta ezespena

Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako inguruabarren bat dagoenean, epaimahaiko kideek uko egin beharko diote esku hartzeari, eta interesdunek edozein unetan errekusatatu ahal izango dituzte.

Parte ez hartzeko arrazoiren bat duten epaimahaikideek Mankomunitateko lehendakariari jakinarazi beharko diote, eta hark bidezkoa dena ebatziko du.

Errekusatzerik egonez gero ere Presidentziak ebatziko du bidezkoa dena.

Epaimahaikideek ez dituzte hautagaiekin pertsonalki tratatuko hautaketa prozesuarekin lotutako gaiak, eta deialdiaren oinarrietan ezarritako bideetatik Kalifikazio Epaimahaira jotzeko eskatuko diete.



Jarduteko arauak

Epaimahaiak, oinarri hauetan xedatuari kalterik eragin gabe, bere jarduna egokituko du Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikulutik 19.era arte ezarritako arauetara.

Epaimahaikide guztiek hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea izango dute, idazkariak izan ezik; idazkariak ahotsarekin baina botorik gabe jardungo du. Bertaratutakoen botoen gehiengoari jarraikiz hartuko dira erabakiak. Presidentzian diharduenaren kalitateko boto bidez ebatziko dira berdinketak.

Epaimahaikide titularrak ez badaude edo gaixorik badaude eta, oro har, justifikaturiko kausaren bat dagoenean, ordezkoez hartuko dute haien lekua.

Ahalmenak

Epaimahaiak funtzioetarako autonomia osoz jardungo du, prozeduraren objektibotasunaren erantzule izango da eta deialdiko oinarriak betetzen direla bermatuko du. Hautabide tekniko eta independentzia printzipioak bermatuz jardungo du.

Era berean, antolamendu juridikoaren arabera, oinarri hauek aplikatzean sor litezkeen zalantza guztiak argituko ditu epaimahaiak, deialdiaren garapenean ordena egokirako beharrezkoak diren erabakiak hartuko ditu eta oinarrietan aurreikusten ez diren kasuei dagokienez kontuan hartu behar diren irizpideak ezarriko ditu.

Hautapen prozesuaren edozein unetan, Kalifikazio Epaimahaiak jakiten badu hautagaien batek deialdi honetan eskatutako baldintzak betetzen ez dituela, interesdunari entzunaldia eman ostean, kanporatzeko proposatu beharko dio organo eskudunari, eta hautagaiak parte hartzeko eskaeran emandako informazio zehaztugabearen edo faltsuaren berri emango dio.

Epaimahaiak aukera izango du prozesuan zehar jatorrizko dokumentazioa eskatzeko, bai eta, zalantzarik izanez gero, merezimenduak behar bezala baloratzeko eta/edo baldintzak betetzeko beharrezkotzat jotzen duen edozein dokumentazio osagarri eskatzeko ere.

Epaimahaiak neurri egokiak hartuko ditu oposizio faseko idatzizko ariketen edukiaren konfidentzialtasuna bermatzeko, bai eta horiek zuzentzeko ere. Bada, izangaien nortasuna ezezaguna izango dela bermatuko du posible den guztietan.

Epaimahaiak baztertu egin ahal izango ditu azterketa orrietan beren identitatea ezagutzea ahalbidetzen duten izenak, markak edo zeinuak dituzten hautagaiak, edo ariketak egin bitartean edozein iruzur egiten dutenak.



10.- Komunikazioak, jakinarazpenak eta informazioa

Lehenengo ariketa egiteko deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Mankomunitateko webgunean argitaratuko da, onartu eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrendarekin batera.

Prozedura honetatik eratorritako gainerako komunikazio eta jakinarazpenak Mankomunitatearen webgunean argitaratuko dira.

11.- Hautapen prozedura

Hautapen sistema, berez, oposizio-lehiaketaren sistema izango da.

Oposizio fasea

Hautapen probak ez dira 2020ko azaroaren 1a baino lehenago hasiko.

Lehenengo ariketa egingo den lekua, data eta ordua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Mankomunitatearen webgunean argitaratuko dira.

Ariketa bat guztiz amaitzen denetik hurrengoia hasi arte, gutxienez zazpi egun natural eta gehienez berrogeita bost egun natural igaro behar dira.

Hautagaiei deialdi bakarra egingo zaie ariketa bakoitzerako. Bertaratzen ez diren hautagaiak hautapen prozesutik kanpo geratuko dira, behar bezala justifikatutako eta Epaimahaiak askatasunez aintzat hartutako salbuespen egoeretan izan ezik.

Identifikazio ondorioetarako, hautagaiek NANA edo beren identitatea egiaztatzen duen dokumentu ofizial baliokidea eraman behar dute.

Oposizio fasean, hiru ariketa hauek egin behar dira:

- 1. ariketa: Proba teorikoa. Nahitaezkoa eta kanporatzailea. 0 puntutik 5era bitartean baloratuko da.
- 2. ariketa: Proba praktikoa idatzia. Nahitaezkoa eta kanporatzailea. 0 puntutik 10era bitartean baloratuko da.
- 3. ariketa: Gidatze proba praktikoa eta maniobrak. Nahitaezkoa eta kanporatzailea. 0 puntutik 15era bitartean baloratuko da.
- 4. ariketa: 1. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko proba espezifiko. Nahitaezkoa eta kanporatzailea. EAEko Administrazio Publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua aplikatzeko indarrean diren arauetan xedatutakoaren arabera Epaimahaiak probak egitetik salbuesitako oposizilogileak ez beste guztiek egiaztatu beharko dute 1. hizkuntza eskakizuna.



DEBAGOIENKO MANKOMUNITATEA

Oposizio faseko ariketak amaitu ondoren, Epaimahai Kalifikatzaileak Mankomunitatearen webgunean argitaratuko ditu hautagaiek lortutako behin-behineko emaitzak. Emaitzak argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita, hautagaiek 10 egun balioduneko epea izango dute Epaimahai Kalifikatzailearen aurrean ariketari buruzko erreklamazioak egiteko. Epe horretan, beren ariketaren kopia bat eskatu ahal izango dute hautagaiek; horrek ez du, ordea, erreklamazioak egiteko epea etengo. Epe hori amaituta eta, hala badagokio, aurkeztutako erreklamazioak ebatzita, Epaimahaiak ariketaren behin betiko emaitzak emango ditu argitara.

Lehen ariketa: proba teorikoa.

Nahitaezkoa eta kanporatzailea.

Eranskinean jasotako gaien inguruan erantzun alternatiboko galdetegi bati idatziz erantzutea izango da.

Ariketa honen gehieneko balorazioa 5 puntukoa da, eta gutxienez 2,5 puntu eskuratu behar dira ariketa gainditzeko.

Atal honetan, hutsegite bakoitzak balioaren herena kenduko dio ondo emandako erantzun bati; hau da, hiru erantzun okerrekin erantzun on baten balioa deskontatuko dute. Zuri utzitako erantzunak ez dira hutsegitetzat joko.

Bigarren ariketa: proba praktikoa idatzia.

Nahitaezkoa eta kanporatzailea.

Epaimahaiak planteatutako kasu praktikoa, lanpostuaren berezko eginkizunekin eta eranskineko gai-zerrendarekin lotutakoak, idatziz ebatzea izango da.

Bigarren ariketa honen gehieneko balorazioa 10 puntukoa da, eta gutxienez 5 puntu eskuratu behar dira ariketa gainditzeko.

Hirugarren ariketa: Gidatze proba praktikoa eta maniobrak

Nahitaezkoa eta kanporatzailea.

Praktika batzuk egingo dira Mankomunitateko etxeko hondakinak biltzeko zerbitzuko zenbait ibilgailurekin, izangaiek zerbitzuko ibilgailuak eta makinak erabiltzeko duten gaitasuna ebaluatzeko, zerbitzuaren benetako baldintzak simulatuz.

Hirugarren ariketa honek bi zati izango ditu:

1. Gidatze-proba. Mankomunitateko hondakinak biltzeko ibilgailu bat bide publikotik gidatzea izango da.

2. Maniobrak. Ibilgailu arin batekin eta hari akoplatutako atoi batekin maniobrak egitea izango da.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Ariketa honen gehieneko balorazioa 15 puntukoa da, eta gutxienez 7,5 puntu eskuratu behar dira ariketa gainditzeko.

Laugarren ariketa: 1. Hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko proba espezifiko. Nahitaezkoa eta kanporatzailea. EAeko Administrazio Publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua aplikatzeko indarrean diren arauetan xedatutakoaren arabera Epaimahaiak probak egitetik salbuetsitako oposizilogileak ez beste guztiek egiaztatu beharko dute 1. hizkuntza eskakizuna.

Ariketa hau GAI edo EZ-GAI kalifika daiteke.

Lehiaketa fasea

Lehiaketa fasean, oposizio fasea gainditua duten hautagaiek aurrez adierazitako eta egiaztatutako merituak aztertu eta baloratuko dira.

Merituen lehiaketa fasea ez da kanporatzailea izango, eta bertan eskuratutako puntuazioa ez da kontuan hartuko oposizio faseko probak gainditzeko.

Epaimahai Kalifikatzaileak 10 egun baliouduneko epea irekiko du baloratu beharreko merituak egiaztatzeko.

Deialdian parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea itxi aurreko zirkunstantziekin lotutako merituak baino ez dira baloratuko.

Epaimahai Kalifikatzaileak merituak baloratuko ditu, eta lehiaketa faseko behin-behineko kalifikazioak argitaratuko. Kalifikazio horiekin batera, dokumentazioa zuzendu beharra daukaten hautagaien zerrenda argitaratuko da, zein merituren egiaztapena zuzendu behar den berriaz adieraziz. Aipatutako argitalpena egin eta biharamunetik zenbatzen hasita, hautagaiek 10 egun baliouduneko epea izango dute egoki ikusten dituzten erreklamazioak formulatzeko eta egoki diren zuzenketak egiteko. Epe hori amaitu ondoren, aurkeztutako erreklamazio eta zuzenketak aztertuko ditu Epaimahaiak, eta horren ostean, lehiaketa faseko behin betiko kalifikazioak emango ditu argitara.

Hona hemen Epaimahaiak baloratuko dituen merituak, zeinak eskabidean adieraziko eta behar bezala egiaztatuko diren:

a) Esperientzia profesionala

- Gehienez ere 9 puntu emango dira, 0,20 puntu lan egindako hilabete oso bakoitzeko, etxeko hondakinak biltzeko zerbitzuetako gidari edo gidari/zamaketari gisa izandako esperientzia profesionalagatik.

- Gehienez ere 2 puntu emango dira, 0,05 puntu lan egindako hilabete oso bakoitzeko, etxeko hondakinak biltzeko zerbitzuetako zamaketari gisa izandako esperientzia profesionalagatik.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

- Gehienez 2 puntu emango dira, 0,05 puntu lan egindako hilabete oso bakoitzeko, C motako gidabaimena behar duten ibilgailuen gidari gisa izandako esperientzia profesionalagatik.

Lanaldi partzialez edo lanaldi murriztuz zerbitzu emandako aldian, lan egindako lanaldiaren proportzioan zenbatuko dira.

Zenbaketa egiteko, lan egindako aldietan egindako egunak batuko dira, eta batura ateratakoan, baztertu egingo dira hilabetetik beherako zatikiak. Ondorio horietarako, ulertuko da hilabetea dela 30 egun naturalen multzoa.

Aurreko zenbakietan deskribatutako lanbide-esperientzia Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak emandako egiaztagirien eta enpresa-ziurtagirien bidez egiaztatuko da, baldin eta zerbitzuak erakunde pribatu batean eman badira; zerbitzuak administrazio publiko batean eman badira, nahikoa izango da administrazio horretako organo eskudunak emandako ziurtagiria. Ziurtagiri horretan honako alderdi hauek jaso behar dira: betetako lanpostuaren izena eta ezaugarriak, lanpostuaren eginkizunak eta zereginak, lan-lotura, lan egindako aldian.

Mankomunitatean bertan izan bada, nahikoa izango da aipatutako epean adieraztea.

12.- Azken kalifikazioak eta gaindituen zerrenda

Hautagai bakoitzaren azken kalifikazioa oposizioko eta lehiaketako ariketa guztietan lortutako puntuazioen batura izango da. Horrek zehaztuko du behin betiko puntuazio hurrenkera.

Azken kalifikazioan berdinketa badago, lehentasun-hurrenkera honako irizpide hauen arabera ezarriko da, hurrenez hurren:

1. Emakumeen alde, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27. artikuluan ezarritakoaren arabera.
2. Lehiaketa-fasean zerrendatutako merezimenduetan puntuazio handiena lortu duenaren alde.

Ariketen kalifikazioa eta merezimenduen balorazioa amaituta, Kalifikazio Epaimahaiak gainditu dutenen zerrenda argitaratuko du, lortutako puntuazio hurrenkeraren arabera.

Epaimahaiak ezin izango du, inola ere, deitutako plazen kopurua baino hautagai gehiago proposatu.

Epaimahaiak Mankomunitateko Presidentziari helaraziko dio behin betiko proposamena.



DEBAGOIENEO MANKOMUNITATEA

13.- Baldintzak egiaztatzea

Hautatuen behin betiko zerrenda argitaratu ostean, horiek 20 egun baliodun izango dituzte, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Mankomunitateko idazkaritzan aurkezteko 4. oinarrian eskatutako baldintzen egiaztagiria.

Lanpostuaren berezko zereginak gauzatzeko gaitasun funtzionala Mankomunitateak zehaztutako zerbitzu medikuek emandako ziurtagiri medikuaren bidez egiaztatuko da. Horretan ziurtatu beharko da hautagaiak baduela zereginak gauzatzeko gaitasun funtzionala, eta ez daukala hori galaraziko duen gaixotasunik edo muga fisiko edo psikikorik.

Horretarako, beharrezko proba eta azterketa medikuak pasa beharko ditu hautatuak. Proba horiek egiteari uko egiteak hautaketa prozesutik kanporatzea ekarriko du.

Proposatutako hautagaiak ez balu aurkeztuko dokumentazioa edo ez balitu eskatutako baldintza guztiak egiaztatuko, ezinbesteko kasuetan izan ezik, galdu egingo lituzke hautaketa prozesuan parte hartzeagatik erator daitezkeen eskubide guztiak, eta baliorik gabe geldituko lirarteke bere jarduketa guztiak. Hori guztia, parte hartzeko eskaera faltsutzeagatik izan zezaketen erantzukizunari kalterik egin gabe.

Baldintzak egiaztatu ez direnean, eta hautatuek uko egiten duten kasuetan, Mankomunitateko presidentek azken kalifikazioetatik sortutako lehenetasun hurrenkerara jo ahal izango du hautatutako beste hautagai batzuk izendatzera. 20 egun balioduneko epea eman behar zaie beharrezko dokumentazioa aurkezteko.

14.- Lan-kontratuak

Hautatuek baldintzak betetzen dituztela egiaztatu ostean formalizatuko dira lan-kontratu mugagabeak, eta horietan ezarriko da bakoitzari dagokion probaldia.

Probaldi horrek iraun bitartean laneko harremana suntsiarazi ahal izango da. Aldi hori igarotakoan, kontratuak ondorio guztiak sortuko ditu.

15.- Administrazio publikoen arteko lankidetzak

Mankomunitateak hala eskatzen duten EAEko administrazio edo instituzio publikoen esku jarri ahal izango du sortzen diren lan-politsetako pertsonen zerrenda, baldin eta 6. oinarrian aurreikusitako berariazko baimena eman bada.

Edonola ere, eskari horiei ematen zaien erantzun eraginkorra politsetako langile libreen araberakoa izango da, eta Mankomunitateak berak langileen arloan dituen beharrezko araberakoa.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

16.- Gorabeherak

Kalifikazio Epaimahaiak sortutako zalantzak ebazteko baimena du. Halaber, oposizio-lehiaketa behar bezala garatzeko erabakiak har ditzake oinarri hauetan araututa ez dauden alderdiei dagokienez.

17.- Aurkaratzeak

Deialdi hau, horren oinarriak eta bertatik nahiz Kalifikazio Epaimahaitik eratorritako administrazio egintza oro aurkaratu ahal izango dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako kasuetan.

ERANSKINA

Ikasgai-zerrenda

1. Gaia.- Debagoiena eskualdea, ezagutza geografikoa.
2. Gaia.- Etxeko hondakinak biltzeko Debagoieneko ordenantza arautzailea. I eta II tituloak, eta I eranskina.
3. Gaia.- 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa. III eta V Kapituluak.
4. Gaia. Ibilgailu astunei, lehentasunezkoei, bereziei, pertsonak eta salgaiak garraiatzeko ibilgailuei eta administrazio-izapideei buruzko Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren araudia. 2. gaia (kamioiak).
5. Gaia. Ibilgailu astunei, lehentasunezkoei, bereziei, pertsonak eta salgaiak garraiatzeko ibilgailuei eta administrazio-izapideei buruzko Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren araudia. 4. gaia (atoiak).
6. Gaia. Ibilgailu astunei, lehentasunezkoei, bereziei, pertsonak eta salgaiak garraiatzeko ibilgailuei eta administrazio-izapideei buruzko Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren araudia. 9. gaia (takografoak).

EGINBIDEA.- Oinarri hauek Mankomunitateko lehendakariak onartu zituen 2020ko irailaren 21ean.

**Arrasaten, 2020ko irailaren 24an.
BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA**